

FORTUNATO UNZUETAN ETA BEGOÑA'KO BITXIAK

Begoña'ko parroko-orde zan Fortunato Unzueta abadeak eskutitz luze bat egin eutson Mateo Mugika Gas-teiz'ko Gotzaiñari Fraskatti'ra eta gutun orretan argi ta garbi diñotso zer jazo zan Begoña'ko Amaren bitxiakaz, guda urreratu zanean.

Labur-labur azalduko doguz eskutitz orretan agertzen diran jakingarriak.

Astigarraga'tar Bernardo zan Begoña'ko parrokoa guda asi zanean eta arduratuta egoan Begoña'ko Ama'ren irudia, koroaiak eta bitxiak zelan zaindu asmatzen ez ebal. Antxiñatik egozan Bizkai'ko Bankuan, baiña ez egozala ondo babestuta uste eban.

Eliodoro de la Torre zan Eusko Jaurilaritza'ko Ogasun-Sail-Burua eta onek arazoa jakin ebanean gogoz artu eban eta urtenbiderak aurkitzen algindu be bai.

Laguntza orregaz baretu zan apur bat D.Bernardo baiña parrokotza itzi egin bear izan eban eta ille batzutarako D.Fortunato Unzueta geratu zan parrokiko ardura-dun eta onegan eukan uste osoa parrokoak. Agindu au emon eutson: Bitxiak ondo gordeteko eta iñori ez esateko non dagozan.

Zalantza aundiak izan ebezan, baiña azkenean auxe erabagi eban: Toulouse'ko banku batera eroatea Bizkai'ko Bankuan egozan bitxiak, irudia eta koroaiak lengo lekuan itzita. Erabagi au artzeko batuta, oneik izenpetu eban agiria: Fortunato Unzueta, Eliodoro de la Torre, Luzio Aretxabaleta, N. Hernandez eta Dabid Ilarduia. Batzarrera ekarri ebazan bitxiak Bankuak, inbentarioa egin zan eta bostak izenpetu eban.

D.Eliodoro arduratu zan bitxiak Toulouse'ra eroateko. Onek Yanguas eritxon pilotoari emon eutsozan eta onek eroan ebazan, beste bitxi batzukaz batera, baiña iñok ez eutson esan kutxa aretan zer joian, balio aundikoa zala baiño ez.

Eldu zan Yanguas Toulouse'ra eta bosten izenean Frantze'n itzi ezin zeitekealako, Eliodoro etorri-artean bankuan Yanguas'en izenean geratu zan kutxa.

Eliodoro Toulouse'ra joateko alegiñak egiten ebillan bitxiak bear dan izenagaz ipinteko, baiña luzatu egin jakon joatea.

Or bitartean Yanguas bere egazkiñagaz Frantze'tik Bilbao'ra etorrela, Zarautz'en lurreratzeraz beartu eban eta an Franco'tarrak arrapau eban egazkiñean etorren Alfredo Espinosa Osasun Sailburua eta il egin eban.

Gaur argi dago Yanguas ori etoia zala.

Yanguas onegaz Toulouse'ra urreratu zan Joakin Goioaga eta biak bat eginda, bitxiak España'ra ekarri ebezan.

Ekarte orretan ez eban izan zer-ikusirik ez Eusko Jaurilaritzak eta ez Euskal Errepublikeak. Iñok ez ekian ezetxu be, Eliodoro de la Torre'k eta Fortunato Unzueta'k izan ezik. Gero sartu zan orra Yanguas piloto faksista etoia. Yanguas geratzen da zalantzan, baiña beste biak errubakoak zirala argi dago.

Bitxiak Bilbao'ra eldu ziranean, beste era batera agertu eban arazoa faksistak. Dana bideratu eban dagonillaren 15n. egunean egin zan eleizkizuna egiteko.

“La Gaceta del Norte” izparringian jakingarriak one-lan agertu ziran:

1.– Illearen 15n. egunean 12'etan biurtuko jakoz Begoña'ko Ama'ri, gorriak eta separatistak ostu eutsozan bitxiak. Lenengo Aita Santuaren Ordezko dan Antoniutti monseñorak bedekinkatuko dauz.

2.– Franco Gudalburu Nagusiaren emazate lirain eta zintzoak emongo dautsoz Begoña'ko Ama'ri Euzkadiko Gobernuak ostutako bitxiak, Joakin Goioaga'k zurtasenez erbestetik ekarrita.

3.– Bilbao'ko Udalak Carmen Polo de Franco'ri eskaria egin dautso erriaren izenean, bitxiak biurtzen etorteko.

4.– Franco Buruzagiaren emazteak biurtu ebazan ostutako bitxiak jentetza aundiaren aurrean.

5.– Eleizkizun orretan Aita Santuaren Ordezko dan Antoniutti monseñorak ipiñiko dauz koroaiak Amaren et Semearen buruetan. Egin eban berbaldia, beste batzuren artean, lotsagarria izan zan.

6.– Dr.Areiltza Bilbao'ko Alkateak egin eban beste berbaldi lotsagarri bat.

Geroago D. Fortunato'k izan eban aukerea D.Pedro Mentxaka ta beste batzuren aurrean Antoniutti orreri zelan iruzurtu eban agertzeko, baiña au izan zan Antoniutti baragarriaren erantzuna: Toulouse'tik aurrera bitxiak ostuta egozan eta ori naikoa da nik esan dodana esateko.

Ikusten da zelako aundikeriagaz eta maltzurkeriagaz jokatu eban gudea egin ebanak. Besteak isilik egon bear!

Olazar'tar Martin'ek